

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ERREPROGRAFIKO EKIPOETAN ERREPRODUZITZEA	Iraupena	80
Kodea	MF1323_1		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Erreprografia	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Erreprografiako lanak jasotzea eta zerbitzatzea	Iraupena	70
	Erreprografiako akabera-lanak		70
	Lanekoak ez diren lanbide-jardunbideen modulua erreprografian.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1323_1: MATERIALAK ETA EKIPOAK PRESTATZEA, ETA ERREPRODUKZIOA EGITEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Izaera desberdineko erreprografiako enkarguen bideragarritasun teknikoa aztertzea.

EI1.1 Erreprografiako eta akaberetako ekipoak ezagutzea, eta beren aplikazio nagusiekin erlazionatzea.

EI1.2 Materialak (originala, euskarri-motak, formatuak, elementu bistaratzailak...) beren ezaugarriengatik eta funtzionalitateagatik identifikatzea, eta haiek erreproduzitzeko ekipo egokiarekin erlazionatzea.

EI1.3 Ekipoen elikatze-, pasatze- eta irteera-sistemak erabili beharreko euskarriarekin erlazionatzea.

EI1.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, eta lan-agindu jakin batekin:

- Lortu beharreko produktuak euskarriarekin eta erreprodukzio-ekipoarekin erlazionatzea.
- Euskarri egokiak (tamaina, gramajea, ehundura, kolorea) eta originala erreproduzitzeko ekipo onenak hautatzea.
- Originala eta fitxategi digitalak erreprodukzio-bitartekora egokitzea.

A2: Erreprografiako ekipoen kontsolaren eta inprimaketa- eta grabaketa-softwarearen informazioa ulertzea, eta originalen erreprodukzio-beharrekin erlazionatzea.

EI2.1 Erreprografiako ekipoen kontsolaren eta inprimaketa-softwarearen ikonografia adierazgarriena deskribatzea.

EI2.2 Ekipoetan alda daitezkeen parametroen ikonografia erlazionatzea dagozkion funtzioekin eta erreprodukzioan duen eraginarekin.

EI2.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, ekipoaren kontsolaren parametro egokiak hautatzea, planteatutako erreprodukzio-beharren arabera.

EI2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, inprimaketa-softwarearen parametro egokiak hautatzea, planteatutako erreprodukzio-beharren arabera.

A3: Erreprografiako lanak erreproduzitzea beharrezko parametroak doituz eta kalitate-irizpideak aplikatuz, eta lan-agindu bati, original bati edo lagin baimendu bati jarraikiz.

EI3.1 Erreprografian erabiltzen diren erreprodukzio-makinak erlazionatzea erreproduzitzen dituzten original-motarekin, erreprodukzio-sistemarekin eta egin ditzaketen eragiketa osagarriekin.

EI3.2 Kasu praktiko batean, erreprografiako ekipoetan erabiltzen diren kontsumigarriak kargatzea edo ordeztzea, indarrean dauden segurtasun- eta osasun-arauak eta ingurumena bestekoak betetz.

EI3.3 Lan-agindua behar bezala zehaztuta daukan kasu praktiko batean:

- Erreprodukzio-proba bat egitea, erreprodukzioaren edukia eta kalitatea emandako argibideei dagokienez alderatzeko aukera emango duena.
- Parametroak lortutako emaitzen arabera doitzea.

EI3.4 Kasu praktiko batean, eta erreprodukzio-lan jakin batetik abiatuta, prozesua kontrolatzeko beharrak bereiztea erreprodukzio-motaren (zuri-beltzean, koloretan, lerroa, bilbea), inprimaketa-formatuaren, tiradaren bolumenaren eta euskarri-motaren arabera.

EI3.5 Lan-aginduak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, eta paperezko euskarria duten originaletatik eta euskarri digitala duten originaletatik abiatuta:

- Erreprodukzio-parametroak doitzea, hala nola tamaina, gramajea, akabera, zuri-beltza, kolorea, lerroa, bilbea...
- Erreprografiako makinaren elikatze- eta irteera-aparatua prestatzea, eta tiradan jarraitutasuna bermatzea.
- Erreprodukzioa egitea aldizka egiaztapenak eginez, eta jarraitutasuna eta kalitatea bermatzea.

EI3.6 Lan-argibideak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, eta euskarri desberdinetako fitxategi digital batzuetatik abiatuta:

- Fitxategi digitalen osotasuna, segurtasuna eta formatua egiaztatzea.

- Egiaztatzea fitxategien tamainak uzten duela grabazioa hautatutako euskarri digitalean egiten.
- Grabatu beharreko euskarriak eta beharrezko softwarea jasotako argibideei jarraikiz prestatzea.
- Fitxategiak grabatzea hautatutako euskarri digitalean, eta ondo funtzionatzen duela egiaztatzea.
- Behar diren kopiak egitea eta grabatutako euskarriak identifikatzea, jasotako argibideei jarraikiz.

A4: Erreprografiako ekipoen lehen mailako mantentze-lanak egitea ekipoen eskuliburu teknikoei eta emandako prozedura-planei jarraikiz.

EI4.1 Ekipoen eskuliburu teknikoetan, mantentze-lanak eta ekipoen mantendu beharreko atalak identifikatzea.

EI4.2 Erreprografiako ekipoen garbiketa- eta mantentze-lanak ezagutzea, fabrikatzaileak eskuliburu jakin batzuetan zehaztu dituenak.

EI4.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, ekipoen mantentze-lanak egiteari buruzkoan:

- Elementu optikoak eta maniobra-kontsolak garbitzea.
- Elementu mekanikoak garbitzea, eta ekipoen eskuliburuetan adierazitako guneetatik hondakinak kentzea.
- Hondakin guztiak (papera, plastikoak, tonerren kartutxoak, tinten ontziak, metalak eta beirak) sailkatzea eta eraman beharreko lekuetara eramatea.

A5: Segurtasun-, osasun- eta ingurumen-araudia aplikatzea erreprografia-lanetan.

EI5.1 Erreprografiako erreproduzio-ekipoak prestatzeko, maneiatzeko eta mantentzeko segurtasun-arauek deskribatzea.

EI5.2 Erreprografia-enpresetako lan-ingurunean erreproduzio-ekipoekin gerta daitezkeen arrisku ohikoenak identifikatzea, eta istripuak saihesteko prebentzio-neurriak deskribatzea.

EI5.3 Erreprografia-enpresetan erreproduzio-lanak egitean sortzen diren hondakinak kudeatzeko prozedurak ezagutzea.

Edukiak

1. Originalak tratatzea, gero erreproduzi daitezen

- Jatorrizko-motak: opakuak, gardenak, optikoak eta informatikoak.
- Erreproduzioaren bideragarritasuna: ekipoekiko eta eskatutako kalitatearekiko erlazioa.
- Jatorrizko informatikoen bateragarritasuna.

2. Erreprografiako ekipoak erabiltzea

- Tonerra erabiltzen duten erreprografiako ekipoak: Inprimagailuak: zuri-beltzean eta koloretan Fotokopiagailuak: zuri-beltzean eta koloretan
- Tinta injektatzen duten erreprografiako ekipoak: Plotterra: zuri-beltzean eta koloretan Inprimagailuak: zuri-beltzean eta koloretan
- Ekipoen elementuak: elikatzea, pasatzea eta irtetzea.
- Kontsolak. Aplikazio informatikoak.
- Erreprografiako ekipoen ikonografia.
- Ekipoen argibide teknikoak.
- Martxan jartzea.
- Lehen mailako mantentze-lanak.

3. Erreproduzioan erabiltzen diren euskarriak eta kontsumigarriak identifikatzea

- Euskarri inprimagarrien motak:
 - Fisikoak: paperak, euskarri plastikoak (biniloak, azetatoak...) eta euskarri bereziak (itsagarriak, berjuratuak...).
 - Digitalak.
- Erreprografiako ekipoen kontsumigarriak: Tinta. Tonerrak
- Euskarriaren eta erreprografiako ekipoen arteko erlazioa.

4. Ekoizpena erreprografian

- Erreproduzioaren kalitatea.
- Alda daitezkeen parametroak. Erreproduzioan duten eragina. Kolorea. Distira. Kontrastea. Dokumentuaren tamaina Maketazioa.
 - Erreproduzio-probak.
- Erreproduzio-prozesuko doikuntzak.

5. Erreprografian materialak prestatzeari eta ekipoei aplikatzen dakizkiekeen segurtasun- eta laneko osasun-arauek eta ingurumena babestekoak

- Abiarazte-, maneiatze- eta mantentze-lanetarako segurtasun-arauek.
- Arrisku espezifikoak eta zerikusia duten faktoreak.
- Erreprografiako lanetan hondakinak kudeatzeko prozedurak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Erreprografia.